



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Batzar Nagusiek ez dabe onartu 14 urtetik beherakoek doan bidaiatzea Bizkaiko herri garraioan

Bilbon, 2014ko irailaren 26an

Bizkaiko Batzar Nagusietako Herri Lan eta Garraioetako Batzordeak ez dau onartu 14 urtetik beherakoentzat herri garraioa doan izatea eskatzen eban Socialistas Vascos taldearen (PSE-EE) Arauz Besteko Proposamena. Ekimen horren bitartez, eskaera egin gura jakon Aldundiari, Bizkaiko Garraioen Partzuergoan egin beharrekoak egin daizan 14 urtetik beherakoek doan izan daien Bizkaiko Lurralde Historikoan gaur egun ibiltzen diran garraio “guztiak” erabiltea. Ekimena ez da onartu, kontrako 6 botogaz (EAJ-PNV), aldeko 4gaz (PSE-EE eta PP) eta 3 abstentzinogaz (EH Bildu).

Neurria Joaquín Colmenero batzordekide sozialistek defendidu dau, eta azpimarratu dau 14 urtera arte –gero proposamena 16 urtera arte luzatu da, PSE-EE taldeak PP-ren zuzenketa eskea onartu dauelako– herri garraioa erabili ahal izatea aukera bikaina izango litzatekela herri garraioaren “etorkizuneko erabiltzaileengan inbertitzeko”. “Familien egoera ekonomiko larria arintzen eta gazteak fidelizatzen lagunduko leuke, etorkizunean erabiltzaile izan daitezcan”. Bere defentsan, Colmenerok, doakotasun hori apliketan daben urien adibide batzuk aitatu ditu, doakotasun hori “13 urtetik” beherakoei eskintzen jaken Gijon adibidez, edo “tarifa edo bono bereziak” ezarri dituen lekuak, “Bartzelona, Girona, Lleida, Madril edo Donostia”, beste batzuen artean.

Azkenean onartu barik geratu dan ekimenak PP-ren zuzenketa eske bat be jaso dau, tarifen hobari hori 16 urtera arte luzatzeko. Jesús Isasik, PP taldeak batzordean daukan bozeroaleak, azaldu dauenez, helburua adina luzatzea da, derrigorrezko hezkuntzaren adinagaz “bat etorri daiten”, holan, euren ikastetxeetatik 4 kilometro baino gitxiagora bizi diran eta eskolako garraiotik kanpo dagozan ikasleen garraio beharrei erantzun ahal izateko. Isasik adierazo dauenez, bere taldeak gai horri buruzko Arauz Besteko Proposamen bat aurkeztuko dau.

Batzarretako EAJ-PNV eta EH Bildu taldeen eretziz, beste talde biak planteautako doakotasuna “inkoherentea” eta “populiste” da. “Hauteskundeak heltzen diranean egiten diran planteamentuak dira”, aurpegiratu deusie Jon Larrea jeltzaleak. Bi talde abertzaleak, bizikidetzaren unidatearen edo familiaren errenten arabeko beherapenak apliketearen alde agertu dira, zer edo zer egitekotan. “Ez dau emoten zuzena danik danontzat doan izatea”, esan dau Larreak. Bilduren eretziz, Gizatrans txartelaren (65 urtetik gorakoentzako titulua) filosofia gazteei luzatzea izango litzateke. Txartel horregaz, “BBVA-ko erretirau batek, bestelako alargun edo pentsiodun batek edo baliabide gitxiagoko beste edozeinek daukan tarifa bera ordaindu behar dau”.

EAJ-PNV taldearen eretziz, badagoz sozialisten proposamenaren “ontasuna zalantzan jarten daben” hainbat alderdi. Jon Larrea jeltzalearen ustetan, ekimenaren helburuak “txalogarriak” izan daitezke, baina 14 edo 16 urtera arte doan izateak “ez dau esan gura politika hori beherapenak eskintzeko politikea baino eraginkorragoa danik” bezeroak erakarteko orduan. “Egia esan, ezer kostetan ez dana ez da baloretan, edo oso gitxi baloretan da. Seguruenez,



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

gazteak herri garraiora bideratzeko egokiagoa izango da euren familia eta gizarte ingurunean garraio publikoa erabilten dala eta garraio publiko hori kalidadekoa dala ikustea”, defendidu dau.

Talde jeltzalearen eretziz, kalidadeko herri garraioa lortzeko “jasangarritasun ekonomikoa guztiz beharrezkoa da, eta hori ez da doakotasunagaz lortzen”. EAJ-PNV taldeko ordezkariak adierazo dauenez, kontuan izan behar da garraioak administrazioen laguntza “handia” jasoten dauela eta, ganera, lehendik be apliketan jakezala beherapenak gazteei. Ganera, PSE-EE eta PP taldeei galdetu deutse ea “zuzena” iruditzen jaken “bizkaitarrok 16 urtetik beherakoen aisia bidaiak ordaindu behar izatea”.

LAB-EN PRESENTZIA BIZKAIBUSEKO AKORDIOAREN JARRAIPENERAKO BATZORDEAN

Saio berean, batzordeak ez dau onartu EH Bildu taldeak aurkeztu dauen Arauz Besteko Proposamen bat, Herri Lan eta Garraioetako Sailak LAB sindikatuari Bizkaibusen jarraipenerako mahaiari egotea “laga deion”. Koalizio abertzaleak salatu egin dau sindikatu hori, ganerako sindikatuek eta Aldundiak orain arte egindako 7 bileretatik “baztertua” izan dala, ez ebalako akordioa sinatu. Ekimena baztertu egin da, kontrako 6 botogaz (EAJ-PNV), aldeko 3gaz (EH Bildu) eta 4 abstentzinogaz (PSE-EE eta PP).

Ganerako taldeen eretziz, sindikatu abertzalea bera izan zan orain urtebete ELA, UGT, CCOO eta USO sindikatuek eta Herri Lan eta Garraioetako Sailak sinatu eben akordioaren jarraipenerako mahaitik “kanpo geratu zana”. Akordio hari esker indar barik geratu ziran Bizkaibuseko emakidadun barriek beharginen subrogazioa lortzera bideratuta egozan mobilizazioak. “Aldundiak ez dau inor baztertzen, LAB izan zan bere burua baztertu ebana, ez ebalako akordioa sinatu”, erantzun dau Nerea Ahedo jeltzaleak, eta azpimarratu dau sindikatu horrek bileretan parte hartzeko aukera daukala, akordioa sinatzen badau.

PP TALDEAK BAZTERTU EGIN DITU AURKEZTU BEHAR EBAZAN ARAUZ BESTEKO PROPOSAMEN BI

Horrez gain, Bizkaiko Talde Popularrak (PP) baztertu egin ditu batzordean aurkeztu behar ebazan Arauz Besteko Proposamen bi, bere eskari biak bete egin dirala ulertu dauelako: autobus markesina baten instalazioa Barakaldoko Labe Garaien etorbideko 2. zenbakian, eta Artxandan errepideko herri garraioa ezartea. Orain arte Bizkaibusek eskintzen eban zerbitzu hori Bilbobusek eskiniko dau hemendik aurrera.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Las Juntas Generales rechazan que los menores de 14 años viajen gratis en el transporte público de Bizkaia

Bilbao, a 26 de septiembre de 2014

La comisión de Obras Públicas y Transporte de las Juntas Generales ha rechazado esta mañana una Proposición No de Norma presentada por el grupo juntero Socialistas Vascos (PSE-EE) en la que se solicitaba inicialmente transporte público gratuito en Bizkaia para los menores de 14 años. La iniciativa en la que se pretendía instar a la Diputación Foral a dar los pasos necesarios en el seno del Consorcio de Transportes de Bizkaia para que este colectivo estuviera exento de pagar título de transporte en “todos” los operadores del Territorio, ha decaído por 6 votos en contra (PNV), 4 votos a favor (PSE-EE y PP) y 3 abstenciones (EH Bildu).

La medida ha sido defendida por el juntero socialista Joaquín Colmenero quien ha destacado que la gratuidad del transporte público hasta los 14 años –en realidad hasta los 16 al aceptar el PSE-EE una enmienda del PP- sería una oportunidad para “invertir en los futuros usuarios” del transporte público. “Ayudaría a mantener la maltrecha economía familiar y fidelizar a los menores para que en el futuro sean usuarios”. En su defensa, Colmenero ha citado algunos ejemplos de ciudades que ya aplican esta gratuidad como Gijón en donde se ofrece esta posibilidad a los menores de “13 años”, o que se decantan por implantar “tarifas o bonos especiales”, como son los casos de “Barcelona, Girona, Lleida, Madrid o Donostia”.

La iniciativa rechazada contaba con la inclusión de una enmienda del PP que pretendía extender este beneficio tarifario hasta los 16 años. Según ha explicado su portavoz en la comisión, Jesús Isasi, se trata de aumentar la edad para hacerla “coincidir” con la de la enseñanza obligatoria y, así, cubrir la necesidad de transporte de aquellos escolares que viven a menos de 4 kilómetros de distancia de su centro de enseñanza y que están excluidos del transporte escolar. Isasi ha anunciado la presentación de una Proposición No de Norma en este sentido.

Los grupos junteros de PNV y EH Bildu han tildado la gratuidad planteada por los otros dos grupos de la Cámara vizcaína de “incoherente” y “populista”. Son planteamientos que se “hacen cuando llegan elecciones”, ha reprochado el jeltzale Jon Larrea. Las dos formaciones nacionalistas se han mostrado partidarias de aplicar, en todo caso, descuentos en función de las rentas de la unidad convivencial o familiar. “No parece que sea justo que sea gratis para todos”, ha dicho Larrea. Para Bildu, supondría extender a los jóvenes la filosofía del billete Gizatrans (título consorciado para mayores de 65 años) en donde “un jubilado del BBVA tiene la misma tarifa que una viuda o un pensionista, o alguien que tiene unos recursos menores”.

Para el PNV, hay otros aspectos que “ponen en duda la bondad” de la propuesta socialista. A juicio del jeltzale Jon Larrea, los objetivos de la iniciativa pueden ser “loables”, pero la propuesta de gratuidad hasta los 14 o 16 años “no garantiza que esta política sea más eficaz que la política de descuentos” para atraer clientes. “La realidad es que lo que no cuesta, no se valora o se valora muy poco. Probablemente hará más por fidelizar a los menores que vean en su entorno familiar y social que se usa el transporte público y que éste sea de calidad”, ha defendido.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

La formación nacionalista cree que para conseguir un transporte público de calidad “hace falta una sostenibilidad económica que no se consigue precisamente con la gratuidad”. Según el representante del PNV , hay que tener en cuenta que el transporte está “fuertemente” subvencionado por las administraciones y, además, ya se aplican descuentos a los menores. Además, ha preguntado a PSE-EE y PP si ven “justo” que “los vizcaínos y vizcaínas tengamos que pagar los viajes de ocio de los menores de 16 años”.

PRESENCIA DE LAB EN LA COMISIÓN DE SEGUIMIENTO DEL ACUERDO DE BIZKAIBUS

En la misma sesión, la comisión ha rechazado una Proposición No de Norma de EH Bildu para que el departamento foral de Obras Públicas y Transportes “permitiera” la presencia de LAB en la mesa de seguimiento del acuerdo de Bizkaibus. La coalición abertzale ha criticado el hecho de que este sindicato haya estado “excluido” de las 7 reuniones que han mantenido hasta la fecha el resto de sindicatos y la Diputación por no firmar dicha acuerdo . La iniciativa parlamentaria ha sido rechazada por 6 votos en contra (PNV), 3 a favor (EH Bildu) y 4 abstenciones (PSE-EE y PP).

El resto de grupos creen que fue el propio sindicato abertzale el que se “autoexcluyó” de la mesa de seguimiento del acuerdo que hace un año firmaron ELA, UGT, CCOO y USO, y el departamento de Obras Públicas y Transporte, y que supuso la desconvocatoria de unas movilizaciones que iban encaminadas, entre otras cosas, a lograr la subrogación del personal por parte de las nuevas concesionarias de Bizkaibus. “La Diputación no excluye a nadie, es LAB quien se autoexcluye al no firmar”, ha respondido la jeltzale Nerea Ahedo, quien ha subrayado que este sindicato está a tiempo de sumarse a las reuniones si firma el acuerdo.

RETIRADAS LAS PROPOSICIONES NO DE NORMA DEL PP

Asimismo, el grupo Popular Vizcaíno (PP) ha retirado las dos proposiciones No de Norma que iba a defender en la comisión por considerar que sus dos peticiones se han resuelto: la instalación de una marquesina de autobús en el número 2 de la avenida Altos Hornos de Barakaldo y la implantación de transporte público por carretera en Artxanda, un servicio que dará Bilbobus y que antes ofrecía Bizkaibus.